

# elkar

UDAZKENA 2024
77. ZENBAKIA
www.elkar.eus

## ALBERTO LADRON ARANA

*Dena eskaini nizun*,
Euskal thriller-egile jarraituenaren lan berria

+

### LUIS ZUECO

*El mapa de un nuevo mundo*, la novela sobre una nueva época

### VÍCTOR DEL ÁRBOL

*El tiempo de las fieras*, la trepidante segunda parte de *Nadie en esta tierra*

### IZEN PROPIOAK:

Toti Martínez de Lezea · Anjel Lertxundi · Eztizen Artola · Xabier Montoia · Leire Vargas · John Andueza · Asel Luzarraga · Irati Jimenez · Antton Olariaga · Atef Abu Saif · Petti · Ana Galarraga · Ingot · Gaston

# IRRIA

**Urtean 10 zenbaki**
etxeko txikienen artean irakurzaletasuna, sormena eta ahozkotasuna sustatzeko

## ipuinak, komikiak, zientziako infografiak, denbora-pasak, jolasak, eskulanak



Egin IRRIAren harpidetza, eta baliatu gure eskaintza berezia: **10 €-ko bonoa** Elkar dendetan erabiltzeko

## URTEAN 53 euro!

HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

- Telefonoz: (0034) 943 30 43 32 zenbakira deituz
- harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz
- www.irria.eus/harpidetza-n izena emanez

Orain, www.irria.eus-en topatuko dituzu IRRIAren edukiak eta euskarriak!



IRRIEN LAGUNAK

berria ekar Katxiporreta




GASTON




Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar
elkar_taldea
postdata.elkar.eus
flickr elkartaldea
elkarTaldea

elkar
www.elkar.eus

elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)** Telletxe 11 94 491 66 16
**ARRASATE** Erdikokale 14 943 79 78 29
**BAIONA** Gouverneurs 9 559 59 35 14
**BARAKALDO** Merindad Uribe 14 944 37 22 76
**BASAURI** Dr. Jose Garai 11 94 426 13 84
**BERGARA** Ibargarai 7 943 76 40 50
**BILBO** Licenciado Poza 14 94 443 47 08
Zamudioko ataria Zazpikale 94 416 14 50
Iparragirre 26 94 424 02 28
**DONOSTIA** Fermin Calbeton 21 943 42 00 80
Bergara 6 943 42 63 50
**GASTEIZ** San Prudencio 7 945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus 945 14 16 70
**HERNANI** Kale Nagusia 30 943 55 15 37
**IRUN** Colon pasealekua 8 943 63 17 26
**IRUÑEA** Comedias 14 948 22 41 67
Leire 9 948 17 55 38
**TOLOSA** Arostegieta z/g 943 67 35 33

lonely planet

LA INSPIRACIÓN QUE NECESITAS PARA TU PRÓXIMO VIAJE




geoPlaneta




# ALBERTO LADRON ARANA

**Nobela berri batekin dator Alberto Ladron Arana (Iruñea, 1967), euskal thriller egile ospetsu eta jarraituena: *Dena eskaini nizun*. Emakume baten tratu txar eta desagertzea ikertuz, irakurleek estimatzen dizkioten erritmoa, jakin-mina eta sorpresak nabarmentzen dira.**

**DENA ESKAINI NIZUN**
Alberto Ladron Arana
ELKAR




**Zure nobeletan aldaketatxoak eginez zoaz: aurrekoan (*Ilunpeko zelataria*) fantasia-ukituak sartu zenituen; honakoan, berriz, beldur edo terrore psikologikozko elementuak konbinatzen dira osagai poliziakoekin...**
Denbora luzea neraman *Ilunpeko zelataria* bezalako nobela bat egiteko gogoz, naturaz gaindiko elementuak testuinguru errealista batean azalduko zituen istorio bat. Pozik geratu nintzen emaitzekin, eta badirudi irakurleek ere atsegin izan zutela 40ko hamarkadan giroturiko abentura hura.
Nobela honetan, berriz, muturreraino eraman nahi izan dut thrillerraren zirrara, terrore psikologikoaren lurraldeetan sartuz baina naturaz gaindiko konturik erabili gabe: Asiainen nobela bat izanik, elementu horiek lekuz kanpo egonen ziren.
Nolanahi ere, estiloa eta pertsonaiak aldatu ez arren, berritasunak komenigarriak dira, beti nobela bera ez errepikatzeko. Eta, seguruenik, irakurleek biziki eskertuko dituzte giro eta ñabardura desberdinak.

**Izuaren generoak baldintza bereziak ditu idazteko orduan? Nolakoa izan da sortze-prozesua?**
Niretzat ez du berezitasun handirik, nik beti irakurlearen zirrara bilatzen dut, suspensearen eta misterioaren bi-



dez normalean. Oraingoan, tentsio hori handitu nahi izan dut, protagonisten kontrako mehatxuak azpimarratuz eta istorioaren zati handi bat biktimaren ikuspuntutik azalduz, irakurlearen identifikazioa errazten duena. Izan ere, teknikaren aldetik, tentsioa dosifikatzea izan zen nobela honek eman zidan lanik handienetakoa.
Eroso sentitzen naiz fantasia, terrorea eta polizia-nobela nahastuz, baina nahasketa horiek kontu handia eskatzen dute, irakurlearen sinesmenaren mugak gehiegi ez sakatzeko.

**Liburu honen berezitasun bat da bi aldi kontatzen direla paraleloki: 2017ko udaberrian gertatzen dena batetik, eta 2024ko udazkenean kokatua bestetik...**
Hasieran pentsatu nuen bi istorioak elkarren segidan idaztea: 2017ko desagerpena lehenik, eta 2024ko ikerketa gero. Baina berehala ikusi nuen kapituluak tartekatuta suspensea biderkatu egiten zela: istorioa ez da hain lineala izanen, eta irakurleak ez ditu erantzunak berehala lortuko, beste kapitulu bat irakurri arte itxaron beharko du, eta horrek jakin-mina pizten du. Batzuetan irakurleek ikertzaileek baino gehiago jakinen dute, beste batzuetan informazio berriek noraezean utziko dituzte… Sorpresak segurtatuta daude.

***True Crime* edo egiazko krimenak inspirazio-iturri izan zenituela aipatu zenuen noizbait. Oraingo honetan halakorik baliatu duzu?**
Benetako krimenak egon dira nire azken nobela ia guztien oinarrian. Ideia horiek oso baliagarriak dira argumentua egiten hasteko, benetakoaren indarra baitute. Gero, elementuak nire modura nahastu eta moldatzen ditut, eta askotan gutxi geratzen da hasierako hazi haietatik, baina ordurako nobela abian dago, eta ideiak errazago sortzen dira.
Oraingoan ere, hainbat ideia topatu nituen albisteetan eta *true crime*-ren liburu eta dokumentaletan: Interneten salgai agerturiko delituen frogak, neska bat hil eta haren identitatea lapurtu zuen emakume baten kasua…
Batzuetan, errealitatea hain da bitxia, ezinezkoa baita nobela batean sartzea: irakurleek sekula ez lukete sinetsiko benetan gertatu zenik. Eta hau bezalako nobeletan funtsezkoa da irakurleak argumentua eta pertsonaiak sinestea, bestela haren interesa galduko duzu.



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: JOSÉ LUIS LARRIÓN

**Asiain detektibea itzuli da eleberri honetan. Gustura pertsonaia horrekin?**
Bai, joko handia ematen duen pertsonaia da. Aldi berean tristea eta ironikoa da, borrokalaria eta apala, profesionala eta jatorra... Hau Asiainen bosgarren nobela da, eta ohiko irakurleek hainbat pertsonaia ezagutuko dituzte istorioan: Txueka inspektore-ordea, Vazquez detektibea... Jende bitxiak dira, bakoitza bere moduan, eta Asiainek ironiaz eta eztenkadaz betetako elkarrizketak izanen ditu haiekin. Nolanahi ere, nire liburu guztiak bezala, nobela hau independentea da, ez da beharrezkoa aurrekoak irakurtzea istorioaz gozatzeko.

**Asiainen bizitza pertsonala oraingoan ez da bestetan bezain iluna; argitasun-izpi batzuk sartu nahi izan dituzu?**
Aurreko nobeletan Asiain bere iraganeko mamuekin borrokatzen zen. Beti azaltzen zuen aurrera egiteko determinazioa, baina askotan bere arazoek galarazten zioten bizimodu normala izatea. Oraingoan, badirudi nolabaiteko oreka bat lortu duela bere bizitzan. Hala ere, badaki infernutik bereizten duen murrua ez dela berak nahiko lukeen bezain gotorra.
Nire ustez, pertsonaiek konplexuak eta interesgarriak izan behar dute, baina horrek ez du erran nahi beti zoritxarrekoak edo dramatikoak izatea. Nire nobeletan izugarrikeria asko gertatzen dira, baina beti saiatzen naiz garratzegia ez izaten eta itxaropenari aukera ematen. Horregatik baita ere, umore ukituak sartzen ditut elkarrizketetan: denak ez du beltza izan behar.

**Foruzaingokoa edo ikerlari pribatua izan, zein abantaila ditu bakoitzak idazteko orduan?**
Lehenbiziko hiru nobeletan Asiain Foruzaingoan zegoen, eta poliziaren prozedurak ezagutu behar nituen ikerketa behar bezala deskribatzeko: polizia zientifikoaren lana, epaileen papera, politikarien eta komunikabideen presioa, beste polizia-gorputz batzuekiko lankidetza...
Orain Asiain independenteagoa da, ez ditu beti prozedura estandarrak ezta legearen mugak ere errespetatu behar, baina, bestalde, ez ditu poliziaren baliabideak eskura. Detektibeen metodoak ez dira hain ezagunak, eta batzuetan isilpean gordetzen dituzte… arrazoi aitorrezinak direla medio, askotan.
Asiain orain mundu pribatuan aritzeak irudimen handiagoa eskatzen dit, eta bide bihurriak asmatu behar ditut informazioa lortzeko… Baina seguruenik hori dibertigarriagoa da irakurlearentzat, epaile baten aginduak jarraitzea edo autopsien emaitzak itxarotea baino.

**TERESA LARREA**
Kazetaria



*Proposamena*



**JOSÉ DUESO**
Escritor

# ESPÍRITU DE "SORGINA"

Era muy joven cuando cayó en mis manos cierto libro de la editorial Txertoa, cuya lectura me fascinó. Escrito por una mujer, todo el volumen rebosaba sinceridad, sencillez, ternura, originalidad… También un infinito amor a un mundo que ya no existía, y en el que, sin embargo, nos sumergimos con la naturalidad de quien entra en su propia casa. Y es que da la sensación de que la autora, habiendo vivido en primera persona todo lo que cuenta, se mimetice con sus personajes, ambientes, vida rural arcaica, supersticiones, criaturas mitológicas conviviendo con humanos, lamias que son brujas y sorginas que son hadas… En fin, podría decirse que la obra está escrita por una auténtica bruja. Eso, pese a que en el prólogo, **Julio Caro Baroja** afirme, con su seriedad socarrona característica, que la autora "no es bruja. Sí, literata". Efectivamente era literata, y realmente notable, pero algo de bruja también tenía.

Al poco conocí a esa autora, y, si su obra me había encandilado, la personalidad de aquella ancianita elegante, discreta, amable y sabia, todavía más. De ambas fuentes aprendí a mirar el mundo mágico vasco con otros ojos, descubriendo que las leyendas, los relatos míticos y el saber popular no eran líneas impresas en papel, simplemente, sino que tenían vida propia y esta era tan rica y misteriosa como para atraparte irremisiblemente. Doy fe de que, además de atraparme, en mi caso particular también marcó, en buena medida, mi devenir profesional.

Pasado medio siglo de aquella primera edición, estas breves líneas tienen el propósito de incitar a los lectores de hoy a sorprenderse gratamente con *Nosotras las brujas vascas*, de **Karmele Saint-Martin**, o a disfrutar de su relectura. No será difícil, pues las reediciones hasta la actualidad vienen siendo constantes.




**NOSOTRAS LAS BRUJAS VASCAS**
Karmele Saint-Martin
TXERTOA

*Profila* TRUMAN CAPOTE

# IDAZLE NABARMENA



**XABIER OLARRA**
Itzultzailea

Idazle goiztiarra izan zen **Truman Capote**. Sei edo zortzi urterekin hasi zela idazten esan zuen hainbat elkarrizketatan. Eta hamaika urte zitueneako "idazle egina zela". Erdizka edo sinetsi beharko zaio, baina egia da bere lehenbiziko lan esanguratsua, *Other Voices, Other Rooms*, 24 urterekin eman zuela argitara, eta hori 1948ko New Yorken lortzea ez zela ahuntzaren gauerdiko eztula. Gainera, berehalako arrakasta lortu zuen lan horrekin, bederatzi astez liburu salduena izan baitzen *The New York Times* egunkariaren zerrendetan. Esan izan dute arrakasta horretan liburuko kontakizunak berak adinako garrantzia izan zuela kontrazalean ageri zen argazkiak, non idazlea jarrera limurtzaile edo nabarmen samarrean ageri baitzen. Idazle ezagun izateko irrikaz zegoen Capote, eta hori behintzat lortu zuen. Izan ere, **Andy Warhol** bera liluraturik gelditu baitzen, eta 1952an egin zuen erakusketa batek honako hau zuen izenburutzat: *Hamabost margolan Truman Capoteren testuetan oinarrituta*.

Hala ere, Capotek berak aitortu zuen *Gosaria Tiffany's*-en (1958) izan zela bere lehenbiziko lan arrakastatsu aipagarria, eta hor hegoalde "sakoneko" ipuinetatik New Yorkera egin zuen jauzia. Laster ekingo dio hasitako bide horietakoez bestelakoak bilatzeari. Europara eta Sobiet Batasunera eramango du bizitzak, eta hor izango du sorburua haren benetako maisulanak: *Odol hotzean* "ez fikziozko nobelak". Zorionez, esan dezakegu baditugula euskaraz haren lanik esanguratsuenak, bai hasierako *Gosaria Tiffany's*-en gogoangarria, bai *Odol hotzean*, bai haren arrakasta itzelaren ondoko hainbat narrazio labur: *Eskerregite eguneko bisitaria*, *Gabonetako ipuinak*, eta bere gainbeheran idatzitako bilduma ederra: *Kameleoientzako musika*.

Gaurko estiloan esango genuke Capotek "ez zuela jakin kudeatzen lortutako arrakasta". "Alkoholikoa naiz, drogadiktoa naiz, homosexuala naiz, jenioa naiz" *Kameleoientzako musikaren* hegal batean aldarrikatu zuen idazleak zer atarramendu izan zuen jakin nahi duenak, irakur beza **Laurence Leamer**ren *Capote's Women: A True Story of Love, Betrayal, and a Swan Song for an Era* edo ikusi liburu horretan oinarritutako *The Feud: Capote vs. The Swans* serie laburra.



© ROGER HIGGINS

BARREN-BARRENEAN



# EMAKUMEAK LITERATURAN, LITERATURA FEMINISTA ETA EMAKUMEEN ALDEKO LITERATURA

**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

Zorionekoak gara euskal literaturan. Apenas urte batzuetan pasa gara matxista bakar bat ez izatetik, denok feminista izatera. Eta zorioneko diot ez erabat ironikoki. Hobe genuke geure jarrera matxistak onartu eta gure liburuetan ageri den misoginiaz beldurrik gabe hitz egingo bagenu, gizalegez eta zintzotasunez, baina askoz okerragoa litzateke lehen bezala jarraitzea, gizonak eta emakumeak modu berean tratatzen dituen sistema bat edukiko bagenu bezala jokatuz, arazo sistemikoak ukatuz, eta inolako erreformarik planteatu gabe.

Egin dira erreforma batzuk azken urteotan. Euskal literaturak eman ditu bere misoginia historikoa sendatzeko eta emakumeei ongietorria egiteko pausuak. Editore eta idazle gehiago dira orain emakumeak, dagoeneko ez dira esaten gutaz eta gure literaturaz esaten ziren gauza batzuk. Egia esateko, hitz egin ere gutxiago hitz egiten da literaturaz, oso momentu bajuan gaudelako, baina zorionez orain gure arazo nagusia ez da arazoa ukatu egiten dugula. Beste bat da orain, tamalez, gure arazo nagusia: arazoa konpondutzat ematen dugula. Ez da egia. Bide luzea geratzen zaigu literatura feministago bat izateko, besteak beste, ez dakigulako horrek zer demontre esan nahi duen.

Argi hitz egitearren: gauza ona da literatura batean emakume gehiago egotea eta emakumeen liburuak epaitzerakoan, liburuak epaitzea eta ez *emakumetasuna*. Baina ez da nahikoa. Sistema batean emakume gehiago egoteak ez du sistema hori, berez, feminista bihurtzen. Liburu baten egilea emakumea izateak ere ez du liburua feminista denik esan nahi. Emakume baten literaturan misoginia latza egon daiteke. Andre batek patriarkatuaren logikak barneratzen eta afirmatzen dituen literatura bat egin dezake, edo **Karmele Jaio**k *Aitaren etxea* eta *Maitasun Kapitala* moduko eleberrietan egin duen moduan, egin dezake logika horiek errebelatzen eta patriarkatuari aurre egiten laguntzen digun literatura bat. Egin dezake baita patriarkatuaren aurrean errebelatzen den literatura bat ere, **Amaia Lasa**k egin zuen moduan, boterez betetako bere poesia boteretsuarekin. Eta emakumeek bezala gizonek ere egin dezakete literatura feminista bat. **Oier Guillan**ek *Mr. Señora* lanean eta Amaiaren nebak, **Mikel Lasa**k, gizon berriaren aleluia kantatu zuen bere poesia ederrean egin zuen moduan.

Ez da erraza testu bat feminista den esatea, baina hasi beharko dugu testuaz hitz egiten. Sareinak taldeak egin duen kritika lan aipagarria kenduta, literaturari buruz ez dugulako ia ezer esan, eta badugu sasoia, **Arestik** zioen moduan, honetan ere gizontzeko eta andretzeko. Badugu sasoia liburuak hartu, irakurri, esaten dutenari erreparatu eta sentiarazten digutenari buruz hitz egiteko. Ez da metodo perfektua baina nik ez dut hoberik ezagutzen.

Izan ere, liburu batzuk emakumeon alde idatzita daude, eta beste batzuk kontra. Batzuk ondo tratatzen gaituzte, eta beste batzuk txarto, erresuminez, mendeku gosez, gaiztakeriaz. Beti existitu da kalte egiten duen literatura misogino bat eta beti egon da on egin ahal digun beste bat. Eta bigarrenari ezin diogu beti *feminista* esan, agian, baina on egiten duen literatura beti da ona, eta beti da bestea baino hobea. Has gaitezen literatura hori identifikatzen eta bere alde egiten, berak gure alde egiten duen moduan. Ez zait modu hoberik okurritzen **Bernat Etxeparek** *Emazteen fabore* idatzita abiarazi zuen literatura honetan emakumeen aldeko aro berri bati hasiera emateko.




ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

# MO, BEHI EUSKALDUN BATEN MEMORIAK

***Behi euskaldun baten memoriak*, Bernardo Atxagaren liburua, *MO* nobela grafikoa bihurtu dute Juan Suárez marrazkilariak eta Pello Varela gidoilariak. Varelarekin hitz egin dugu liburuaz.**

**Erronka makala, hain lan ikonikoa nobela grafikora ekartzea, ezta?**
Bai, beti da zaila Bernardoren imajinarioan sartzen eta mundu propio horretatik ateratzen. Ez zen, ordea, bere literaturarekin lan egiten nuen lehen aldia. Duela urte batzuk zeluloidera eraman nuen *Sugeak txoriari begiratzen dionean* ipuina. Oso esperientzia hunkigarria izan zen eta *Behi euskaldun...* irakurri nuenean argi eduki nuen irudietara eramatekoa zela. Behin erronka onartuta, buru belarri hasi nintzen protagonisten eta haien motibazioak aztertzen. Ariketa hori garrantzitsua izan zen istorioaren trama eleberri grafikora ondo doitzeko.

**Nola egokitu duzu jatorrizko kontakizuna komikiaren erritmora?**
Egokitzeko planteamendu klasikoa erabili nuen, hau da, garapena, korapiloa eta amaiera. Egitura honekin eta *flash-back* bitartez lortu nuen istorioa irudietara eramatea liburuaren arima eta mamia galdu gabe. **Juan Suárez**en irudiek bat egiten dute tramarekin eta asko jolasten dute kolore eta fondoekin, pertsonaia eta egoeraren arabera. Bere lana bikaina da.

**Bai, Juan Suárezek unibertso bitxia eratu du irudien bidez...**
Profitatu nuen Juan Euskal Herrian bisitan zegoela gure paisaiak eta lekuak sakonean erakusteko. Azken finean, eta ez bakarrik komikietan, zineman ere gertatzen da, paisaiek edota fondoek istorioaren beste edozein protagonista bezala funtzionatzen dute. Horrez gain, urte bete eman genuen *story-board*a eraikitzen eta ukituak ematen. Konforme izan arte ez genuen etsi. Gero etorri zen marrazte prozesua.

**Bernardo Atxaga oso pozik agertu da emaitzarekin...**
Bernardorekin gauza harrigarria gertatzen zait beti. Beti enbaxada batekin hurreratzen natzaio eta beti ontzat hartzen du. Oso gizon irekia eta gertua da. Ez dakit espero zuen komiki honekin hain emaitza ona ateratzea…

**Elkarrizketa osorik:**
**https://labur.eus/pellovarela**




**MO, BEHI EUSKALDUN BATEN MEMORIAK**
Juan Suárez · Pello Varela
PAMIELA

# DETAILE XUME BAT




**DETAILE XUME BAT**
Adania Shibli
IGELA

1948ko arabiar-israeldar gerran zehar zazpiehun mila palestinar baino gehiago izan ziren beren etxetik egotziak. Hondamendi horri deitzen zaio Nakba edo palestinar exodoa. Handik urtebete pasatxora, 1949ko udan, Israelgo estatu sortu berriak destakamentu militar bat bidali zuen Negev basamortura Egiptorekiko hegoaldeko muga zaintzeko, baita ingurua arakatzeko ere, han gelditzen ziren arabiarren bila. Espedizio horietako batean, soldaduek beduino talde bat aurkitu zuten, eta aurkikuntza hura krimen baten abiapuntua izan zen.

Zenbait hamarkada geroago, XXI. mendearen hasieran, emakume palestinar batek gertakari horri buruzko artikulu batekin egin du topo, eta, harekin lotutako detaile xume batekin obsesionaturik, bidaia arriskutsu bati helduko dio lurralde okupatuetan zehar, egiaren bila.

**Ane Irazabal**ek liburuaren hitzaurrean idatzi duen bezala, **Adania Shibli**ren liburu honek eguneroko indarkeria sistematikoari ahotsa ematen dio eta bidaia bat balitz bezala planteatzen du, alegia, hilketa anker baten klabeak argitzeko asmoz, egiaren bila, antolatutako bidaia da.

Palestinako historiaren azken 75 urteak detaile txikiez osatutako puzzle bat dira. Hedabideen lerroburuak bete ez dituzten emakume, haur eta gizonen istorioek eta izen-abizenek bete dituzte. "Soldadu israeldarrei gaizki erantzun die", "Unibertsitatean grebak antolatu ditu", "Harriak botatzen ari zen"…, edozein arrazoi txikirengatik atxilotuak edo "kolpekari errazaren" biktimak izan diren herritarren zerrenda amaigabea da. Eta azkenaren azkenak, ahanzturarik umiliagarriena pairatu dutenak, Palestinako beduinoak izan dira. Batez ere, emakumeak. Sionismoaren proiektu kolonialak behemailako gizakitzat jo ditu palestinarrak eta are gehiago beduinoak.

Liburu honetan, Shiblik historiaren pasarte beltz ezezagun horri heltzen dio eta iraganera egindako sosegurik gabeko bidaia aurkezten du. Detaile xume baten bidez, palestinarrek jasaten duten garbiketa etnikoaren sustraietara doa eta maisuki erakusten du Israelek azkeneraino eraman duela egintza burutuen politika. Zalantzarik balego, Shiblik muturren aurrean jartzen digu gatazka hau ez zela 2023ko urriaren 7an hasi.

# LUIS ZUECO

**Escribir una novela histórica no se trata de contar sólo lo que ocurrió. Se trata de narrar lo que ocurrió a través de las vivencias de personajes de ficción que acompañan al transcurso de la historia de la humanidad. Y leer una novela histórica es aprender un poco más sobre lo que ocurrió realmente. En *El mapa de un mundo nuevo*, Luis Zueco ha vertido los últimos años de Isabel la Católica, que fueron, también, los primeros de una nueva era.**


© ASÍS G. AYERBE

**Vuelve a Isabel la Católica, a sus últimos días. ¿Podríamos decir que es la mujer más poderosa que ha conocido España?**
Sin duda. Sobre todo, fue la primera. Es una mujer que, para su época, tiene un grandísimo poder. Puede tomar decisiones por sí misma. Y, sobre todo, marca un cambio de época brutal. Un cambio de mundo, en realidad. Y que sea la protagonista de ese cambio de mundo es algo realmente espectacular.

**Pero son los personajes de ficción quienes llevan el peso de la novela.**
Claro, la reina está ahí. Pero también está ahí toda la población, que es la que realmente protagoniza la era histórica. De lo que se trata, en realidad, es de captar el espíritu de la época. Estamos a finales del siglo XV, a principios del XVI, en unos años en los que la gente empieza a despertar, por muchas razones: la imprenta, nuevas ideas, avances tecnológicos,

> *“La Florencia del Renacimiento avanzaba tan rápido que se asustó y se detuvo para retroceder. Lo que está ocurriendo ahora ha pasado muchas veces”*

**¿Cómo elige a esos personajes?**
Es un juego, un rompecabezas con diferentes capas. Yo quería escribir una novela que explicara el mundo de los viajes. Y es que creo que todos somos viajeros. La humanidad es viajera y nómada. Ahora nos hemos vuelto muy sedentarios, pero ese no es nuestro espíritu. Nuestro espíritu es viajar.
Tenía claro que los personajes tenían que ser viajeros. Y para poder viajar, debían tener diferentes motivaciones. A Noah, por ejemplo, uno de los protagonistas, lo he ubicado en Europa, porque investigando, llegué a la boda de Juana la Loca, que se casó en un pueblito de Flandes. También quise viajar por la Europa de aquella época. Hubiera sido muy fácil que Noah conociera la Florencia de los **Medici**, pero quise llevarle a una Florencia oscura, gobernada por **Girolamo Savonarola**. Una Florencia que es la hoguera de las vanidades, donde se queman cuadros de Botticelli, donde el propio Botticelli quema sus cuadros.
Yo sabía que buena parte de la novela tenía que ocurrir en Florencia. Además, sabía que tenía que explicar cómo el lugar en el que empieza el cambio también es un lugar de retroceso. Los cambios no son fáciles.



**EL MAPA DE UN MUNDO NUEVO**
Luis Zueco
EDICIONES B

**¿Podría acercarse a la literatura desde otro lugar?**
Podría. Quizá sí, pero yo escribo sobre lo que me apasiona, y cuanto más investigo, más me apasiona. Afortunadamente la historia te da una ventaja: sabes que estás contando a la gente cosas que han pasado, y eso da una fuerza tremenda a la novela.
Me interesaba contar lo que ocurrió en Florencia, que vivió una época de esplendor y que de pronto se asusta y elige a un personaje como Savonarola para que la gobierne.
Es algo que ha ocurrido mil veces. Son cosas que pasan cuando las cosas suceden muy rápido, como ocurrió en la Florencia del Renacimiento. Avanzaba tan rápido que se asustó y se detuvo para retroceder. Lo que está ocurriendo ahora ha pasado muchas veces.

**TERESA SALA**
Periodista

**La entrevista completa:**
**https://labur.eus/luiszueco**





© ALBERDANIA

*“Xehetasun txikien sare handi bat da bizitza”*

# ANJEL LERTXUNDI




**BERBELITZEN HIZTEGIA**
Anjel Lertxundi
ALBERDANIA

**Izen sujerentea eman dio Anjel Lertxundik bere libururik berrienari, *Berbelitzen hiztegia*. Testu laburrak bildu ditu bertan, munduaren luze-zabala ulertzen saiatzeko. Itzultzaile bat jarri du hizketan, errealitate esaten diogun puzzle hori argitzeko asmoz.**

**Ez da zure idatzietan agertzen den lehen aldia, baina liburu berri honetan izenburua ere eskaini diozu. Nor da Berbelitz?**
Hogei urte dira Berbelitz pertsonaia asmatu nuela Itzultzaileen Elkartearen ospakizun baterako. Itzultzailea da pertsonaia, beti izan nahi zuen horixe. Zerbait irakurtze hutsa ere itzultzea dela pentsatzen du. Inguruan ditugun egoerak eta pertsonak eta bizitza bera interpretatzen saiatzea omen da itzulpena, hala dio Berbelitzek. Munduan ez galtzeko modu bat. Berbelitz hemen balego esango lizuke baietz, bizitza infernu bat dela baldin ez baduzu mundua ulertzeko ahaleginik egiten. Mundua asko aztertuagatik, infernua ez da itzaltzen, baina gutxiago kiskaltzen du. Berbelitzek hala dio. Eta ni konforme samar nago berarekin.

**Itzulpengintzaz ariko zaigu liburuan, baina, zabalago, literaturaz, hizkuntzez, hitzarekiko begiruneaz. Horiek dira Berbelitzen kezkak?**
Kezkak baino gehiago, mundua estimatzen laguntzen dioten lagunak ditu hitzak-eta. Hori guztia gabe, galduko litzateke, *galdu* hitzaren adiera gordinenean: gaixotu, hitzen gozamenik gabe.

**Liburuan irakur daiteke itzultzaile on baten atzean literaturazale bat dagoela gehienetan. Idazle on baten atzean ere, ezinbestean, literaturazale batek beharko luke egon?**
Imajinatzen dut baietz, hala beharko luke. Ez dut ezagutzen irakurri ez duen idazle handirik, baina asko irakurtzeak ez dizu ziurtatzen idazte edo itzultzaile ona izango zarenik. Literaturak badu zer ikusirik originaltasunarekin. Baina, paradoxa ematen badu ere, originala izateko asko irakurri behar duzu. Zenbat idatzi da historian zehar? Ikaragarri. Munduari begiratzeko behatxulo propioa nahi genuke letrazaleok, baina kontu zailetan zailena da originaltasuna.

**Fikzioa ohikoa da, noski, genero literario nagusietan, dela eleberri, dela ipuin; saiakerarekin ezkontzea, ordea, zuk egiten duzun bezala, ez da hain maiz gertatzen. Zer ekartzen dio fikzioak saiakerari?**
Literaturaren marka, letren poza. Hizkera zehatz, on eta guztiz berria ere fikzioa da, letren pozari eusten badio. Hizkera literario –ez akademiko– batekin saiatutako hausnarketa filosofikoak beste dimentsio bat hartzen du, Platonek kobazulo baten paretan ikusten zituen gizakion itzalak lekuko. Literatura deitzen zaio. Garai klasikoko filosofia inportanteena gaurkoa baino askoz ere literarioagoa eta ulergarriagoa da. Elementu literarioak baliatzen zituztelako omen da, Berbelitzek ez du horretan batere dudarik.

***Berbelitzen hiztegia*, azken batean, hain emaitza onak eman dizkizun liburu hibrido modu bat da, testu laburrez josia, *Eskarmentuaren paperak* eta Espainiako Sari Nazionalarekin goia jo zuena. Neurria hartu diozu liburu molde horri.**
Gustatzen zait formula: besteak beste, irakurlea mural baten aurrean jarri nahi duzu, tonu, kolore eta sakonera desberdineko puskak edo teselak eskainiz. Halako liburu batek ez du murala bukatzen, proposamenen eta talaia berri ugarien aukera da. Errealitatea ere –bizitza– puzzle bat da, oso pieza txikien arteko lotuta. Xehetasun txikien sare handi bat da bizitza ere.

**Hiztegi izena eman diozu liburuari, Czeslaw Milosz, Ambrose Bierce eta bestek egin bezala, baina testu bitxi, adagio, glosa, hausnarketa eta apunte literarioen bilduma bat da, askotarikoa.**
Liburua oso zentzu zabal batean da hiztegia. Miloszena autobiografia bat da eta *Abezedario* deitu zion. Bierceren liburuko definizioak tentagarriak dira, horregatik deitu zion *Deabruaren hiztegia*. *Berbelitzen hiztegia*, berriz, bere mundu propioaren lexiko pertsonal bat da besterik gabe.

*“Gustatzen zait formula: besteak beste, irakurlea mural baten aurrean jarri nahi duzu, tonu, kolore eta sakonera desberdineko puskak edo teselak eskainiz”*

**Idoia Santamaria eta Juan Kruz Igerabide izan ditu liburuak luxuzko editore, eta Jorge Gimenez Bech editoreari eskaini diozu, in memoriam.**
Oso konpainia noblean aritu naiz lanean. Jorgeri dagokionez, hasiera-hasieratik ezagutzen zuen proiektua. Liburua bukatzear hil zen. Heriotza ulertu nahia da itzulpenik zailena.

**ARITZ GALARRAGA**
Idazlea



© ELOY MUÑOZ

*“Me obsesiona presentar ante los lectores a personajes que sean lo más veraces posible”*

# VÍCTOR DEL ÁRBOL

**Víctor del Árbol, el premiado autor de *Un millón de gotas* y *La víspera de casi todo*, regresa con *El tiempo de las fieras*, segunda parte de una trilogía que comenzó con *Nadie en esta tierra*. En esta nueva novela, de ritmo acelerado, el autor plantea una intriga de incontables ramificaciones, sigue la evolución de unos personajes heridos y desvela cuál es la historia de uno de ellos, el sicario mexicano, que cometió su primer asesinato a los trece años.**

**¿Cómo ha tratado la evolución de los personajes que aparecían en *Nadie en esta tierra*?**
Lo sucedido tres años antes ha tenido consecuencias dramáticas en cada uno de los implicados. Aquella victoria ha dejado heridas difíciles de curar. Ahora se trata de ver en qué –y en quiénes– se han convertido. Unos luchan por sobrevivir, otros por no perder su alma, algunos querrían volver incluso atrás, pero eso ya no es posible. Descubrimos amistades insospechadas, lealtades traicionadas, cambios de identidad desconcertantes... Todo para ejemplificar que aquellos a los que juzgamos, aquellos a los que amamos o detestamos antes, puede variar ahora si conocemos sus circunstancias. Especial atención merece en este caso el papel del subinspector Soria.

**Suele acercarse mucho a los personajes, hasta lograr cierta empatía por parte del lector, a pesar de sus actos.**
Me obsesiona presentar ante los lectores a personajes que sean lo más veraces posible. Para ello, para ser “humanos”, deben navegar en la fragilidad, en la contradicción, en el miedo y en la duda. Sí, ser humano significa ser imperfecto, decir una cosa y pensar lo contrario, desear algo y no hacerlo... No son héroes, son hombres y mujeres que hacen lo que pueden con sus circunstancias erráticas, buscan un punto de equilibrio entre lo que son y lo que querrían ser. Al conocer sus historias personales y su intimidad –aquello que solo el lector puede conocer, pero que los otros personajes desconocen–, es más fácil comprender sus actos, detestarlos o no, pero comprenderlos. Solo así se puede llegar a crear esta corriente afectiva entre lector y personaje. Son como nosotros, son de los nuestros, aunque a veces nos gustaría que no lo fueran.




**EL TIEMPO DE LAS FIERAS**
Víctor del Árbol
DESTINO

**Sus historias nunca son sencillas, sino que tienen ramificaciones y los crímenes suelen tener un trasfondo político, económico o social. ¿En qué se inspira?**
Basta con observar la realidad cotidiana y tener una visión crítica. Al analizar los hechos encuentro pautas de este siglo XXI donde existe una desconexión entre generaciones analógicas, como la de Soria y las que han crecido en el mundo digital, como la de Vesna. Un mundo donde unos pocos, parapetados tras las llamadas leyes del mercado, se han convertido en depredadores y nosotros en presas.

**¿Qué ingredientes debe tener una buena novela negra?**
No creo que las novelas deban dar lecciones morales ni ser discursivas. Debe tener ritmo, ser ágil, proponer cambios, giros inesperados. Creo mucho en la elegancia, la belleza de la escritura, los paisajes, la atmósfera, la música, la prosodia. Y se necesita que sea feroz, que muerda de verdad y no nos suelte hasta el final.

**KAROLINA ALMAGIA**
Periodista

Elkarrizketa osorik:
https://labur.eus/victordelarbol



# EZTIZEN ARTOLA

**Lehen liburua argitaratu du Eztizen Artola Iturratek, *Gurpilak* (Txalaparta), euskal gatazkaren errelatoa osatze, zauriak sendatze, eta beste ertz batzuei hitzak jartze aldera. Lehen pertsonan kontatutako istorioa da.**



© TXALAPARTA

**Fikzioa den arren, zure istorio pertsonalean dago oinarrituta. Zergatik erabaki duzu liburua idaztea?**
Beti eduki dut buruan liburu bat idaztearen ideia. Euskal Herriko Gazte Feministek Elizondon emakumea eta kartzelari buruzko tailer bat antolatu zuten, eta ondorio nagusietako bat izan zen errelatoa osatu eta gizonen begiradatik aldendu behar genuela. Hor konbentzitu nuen nire burua zerbait egiteko. Gainera, presoak Madrildik gora ekarri zituztenean, elkarrizketak egiten hasi ziren Puerton egondako preso ohiei, eta elkarrizketa horietako batean nire aitari galdetu zioten Puertoko autobusaren inguruan, nahiz eta bera sekula ez zen autobusean ibili. Oso deigarria iruditu zitzaidan, eta konturatu nintzen nik banuela aukera nire bizipenetatik abiatuta liburu bat idazteko, euskal gatazkaren beste ertz batzuei ere hitzak jartzeko.

**Ume baten ahotsetik idatzi duzu, baina urteek eta bizipenek eman dizuten heldutasunetik.**
Hartu nuen lehen erabakietako bat izan zen lehenengo pertsonan idatziko nuela eta ume baten begirada baliatuko nuela. Irakurleak horrela gehiago konektatu zuela iruditzen zitzaidan.

> *“Ariketa kolektibo bat egitea falta zaigu motxiladun umeoi gertatzen zaigunari izena jartzeko”*

Oso bestelakoa da nik orain bizi dudanaren inguruan egiten dudan irakurketa edo momentuan egiten nuena, eta maiz, kostatu zait heldu begiradatik aldentzea, ume batek egingo ez lituzkeen hausnarketetatik urruntzea.

**Ze pasarterekin sufritu duzu? Eta zeinekin disfrutatu duzu?**
Motxiladun umeontzat oso gogorra da bizi dugun egoeraren gaineko kontzientzia hartzeko unea. Haurtzaroan ez ohikoak diren gauza batzuk identifikatzen ditugun arren, hazten goazen heinean hartzen diogu benetako neurria bizi dugun horri. Esango nuke *Burgos* pasartea dela aldaketa horren hasiera kontatzen duena. Arrotza eta mingarria izan da niretzat garai horietan kokatzea berriro nire burua.
Aldiz, gehien disfrutatu dudana Mansillako atala izan da. Umearen begiradarekin eta inozentziarekin jolastu dut. Pasarte batzuk oroitzapenetatik erreskatatu ditut, beste batzuk inguruko motxiladun umeek bizitakoak dira, eta beste hainbat asmatu ditut. Oso dibertigarria iruditu zait haur baten ahotsetik aritzea.




**GURPILAK**
Eztizen Artola Iturrate
TXALAPARTA

**Noizbait uzten dio ume batek motxiladun ume izateari?**
Ariketa kolektibo bat egitea falta zaigu motxiladun umeoi gertatzen zaigunari izena jartzeko eta hainbat kontu identifikatzeko. Liburuarekin hori ere lortu nahiko nuke, erakustea gure sufrimendua ez dela etxera iristean amaitzen. Inork ez du kontatzen zer gertatzen den etxera iristen direnean. Oso zaila da sortu zaizkigun traumak gainditzea, babes emozional handia behar dugu. Uste dut beti izango garela motxiladun ume, eta zauri batzuk ez direla inoiz sendatuko, baina motxiladun ume gehiagorik ez egoteak asko lagunduko duelakoan nago.

**OIHANE OZAETA**
Kazetaria




© ANDER GILLENEA



> “Pertsonaia mitikoarengandik urruntzen saiatu naiz, eta mitoaren atzeko lagunarengana hurbiltzen”

# XABIER MONTOIA




**LAUTADAKO MAMUA**
Xabier Montoia
ELKAR

**Juan Diaz de Garaio *Sacamantecas*en istorioa eraman du Xabier Montoiak (Gasteiz, 1955) *Lautadako mamua* nobelara. XIX. mendearen bigarren erdian hainbat emakume hil zituen Garaiok Gasteiz eta haren inguruetan. Gertaera historikoetatik abiatuta, fikziozko lana ondu du.**

**Juan Diaz de Garaio *Sacamantecas*en istorioa ezaguna dugu Euskal Herrian. Zerk bultzatu zaitu haren ibilerak nobela batean jasotzera?**
Batez ere, haurtzaroko oroimenek. Ez dakit orain, baina orduan maiz aipatzen zuten Gasteizko amek Garaio.

**Galderak zenituen zeure buruan istorioari heltzerakoan?**
Egia esan, galderak baino ez nituen. Garaio, niretzat, mito bat zen, eta ikerketa txiki bat egin behar izan nuen, mitoaren atzean zer zegoen ikasteko. Batez ere, garaiko kronikak irakurri nituen. Kontu harrigarri asko aurkitu nuen horietan, noski. Horietako batzuk oso lagungarriak izan zaizkit nire haurtzaroko Araba hobeto ulertzeko. Hala ere, zehaztasun historikoak zuzen jasotzen saiatu naizen arren, gertakizunen alde literarioaz arduratu naiz, batik bat.

**Zerk harritu zaitu gehien? Bestelako Garaio bat deskubritu duzu?**
Gure amak aipatutako norbait zen niretzat Garaio, nire haurtzaroko izen bat, besterik ez. Hortaz, dena izan da berri eta harrigarria hasieratik. Asko ikasi dut nire sorterriaz, eta zenbait gauza ulertzen dezente lagundu nau ikerketa lanak. Harrigarriena, agian, XIX. mendeko Araban *serial killer* bat bazebilela ikastea izan da.

**Nobelan ageri dira Diaz de Garaioren inguruan mugitzen ziren pertsonak: haren emazteak, seme-alabak, hil zituen emakumeak. Baita hura kartzelan zenean inguruan izan zituenak ere: Juan Gimenez giltzazaina, Esquerro Zaragoza alienista... Denak izen-abizenekin. Pertsonaia asmatuak ere badira eleberrian, halere.**
Bai, bada, bat baino gehiago, Cristobal tabernaria adibide. Garaioren Somorrostro aldeko ibilerak kontatzen ditudanean ere, nik sortu behar izan ditut hango pertsonaiak, eta berdin beste zenbait gertaeraren berri ematean. *Lautadako Mamua* nobela bat da funtsean, eta gehientsua du asmakizun, beraz.

**Nola bihurtu fikziozko pertsonaia bat iruditeria kolektiboan hain sustraituta dagoen pertsona bat?**
Pertsonaia mitikoarengandik urruntzen saiatu naiz, eta mitoaren atzeko lagunarengana hurbiltzen. Asmatu dudan edo ez irakurleak esan beharko, Garaiok berak ezin baitu deus esan.

**Aitor Aranak *Sacamantecas nuen aita* nobelan ekarri zuen Garaioren historia literaturara 2012an. Lan hartan alabaren ikuspuntutik abiatu zen Arana. Irakurria duzu haren liburua?**
Ez. Egia esan, zuri esker jakin dut liburu horren berri. Irakurri egingo dut. Interesgarria iruditzen zait historia ikuspuntu horretatik kontatzea.

**Zuk zeuk ez duzu inoiz *Sacamantecas* goitizena erabiltzen. Zergatik?**
Seguru asko, Garaio izan delako nik etxean entzundakoa, eta ez Sacamantecas.

**Hari buruzko film bat egiten hasia da David Perez Sañudo zinemagilea. Mende eta erdi pasatu denean, zergatik erakartzen du Garaioren hilketen istorioak?**
Hilketa ikaragarriak izan zirelako, nik uste. Industria aurreko Araba hartan bazterrak asaldatu zituen, eta, mende bat geroago, krimen horien oihartzunak entzuten ziren artean Araba osoan. Nik dakidala, gure lehendabiziko *serial killer*-a izan zen.

**MIKEL LIZARRALDE**
Kazetaria



# DENBORA, TOKIA, ZINTZOTASUNA

**Zelan eragin ohi dio toki batek denboraren igaroari? Zelan denborak lekuari? Noiz kontatu eta nola esan kontu garrantzitsuak izanagatik, zintzotasuna izango da bi lagunen arteko zubia. Musikak, sexuak eta, batez ere, eskutitzek bilbatuko dituzte *Azken Portuko Postdatak*en une bi: hamar urte bereizita egon ostean, paper zuriaren aurrean idazteko biluztea; eta bestearen eskutitza jakin-minez eta beldurrez beteta irakurtzea.**

**Hamar urte igaro dira Mon eta Aia elkarrekin egon zirenetik. Zelan eragin die denborak bakoitzari?**
Pertsona bakoitza bere barruko denborak bizi du bere bizialdiko une bakoitzean eta, beraz, halaxe gertatzen da Aia eta Monekin ere. Kanpotik pentsa liteke motelago igaro dela Aiarentzat, Azken Portun beti, inora ezean, Monek utzitako hutsunea bete nahian, Monek, herritik hanka egin zuenetik, abenturaz bete ei baitu bere denbora, atzean utzitako arrastoa ezabatuta. Liburuan aurrera egin ahala, ordea, gauzak ez dira hain argi agertuko. Pertsonaia bakoitzaren azalaren azpian hainbat geruza denbora gordetzen da, gutunez gutun aurrean duten itsasoaren olatuen antzera mugitzen direnak, bare orain, halako batean haitzak eurak ere inarrosteko, protagonisten sekreturik gordeenak pixkanaka agerian utzi ahala.

***Azken Portuko postdatak*. Postdata zaleak zarete?**
Postdatak iradokitzaileak dira; azken unean gogora ekarritakoa ematen dute baina mezu esanguratsua gorde ohi dute. Ez genituen eskutitz guztietan sartu gura, baina ahots bien arteko joko berezia sortu zen haietan, oharkabean ia. Eskutitzen eta pertsonaia bien arteko harremanaren ertzak zabaltzen dituzte, goiburuek eurek legez.

**Puzzleak lotuko ditu irakurleak, agertzen diren misterioak argitzeko; zuek ere ibili zarete misterioak ehuntzen edo hasieratik izan dituzue argi puzzlearen zatiak?**
Hasieran ezarri genuen Aia eta Monen arteko istorioaren hezurdura, baina hortik aurrera askatasun osoa eman genion elkarri pertsonaien bestelako dimentsioetan sakontzeko, ertzak gehitzeko ezusteko noranzkoetan. Joko ederra, elkarri ere ezkutatu baikenizkion karta batzuk partida azken portura eroateko.




**AZKEN PORTUKO POSTDATAK**
John Andueza · Asel Luzarraga
ELKAR

**GARAZI ALBIZUA**
Idazlea

Elkarrizketa osorik:
https://labur.eus/aseletajohn

# LEIRE VARGAS NIETO

**Leire Vargas Nietok (Durango, 2002) bere bigarren poesia liburuarekin, *Bihotz museo bat*, harremanei, oroimenari eta poesiari beste leku batetik begiratzeko aukera eskaini digu.**

**Zergatik *Bihotz museo bat*?**
*Bihotz-museo bat* toki fisiko bat da, non –hasiera baten– fisiko moduan ulertzen ez ditugun kontzeptuak gordetzen diren; emozioak eta harremanak, besteak beste. Bihotz-museoan gordetzen dira bizipenen azpiko sentipenak, eta gorde nahi du ahots poetikoak maite duen jendea, denboraren, kanpo-faktoreen eta bere hutsegiteen eraginetik babesteko.

**Zer da liburu honek gordetzen duena?**
Oinarrian, eszena txiki asko, intimoak, ezdeusak eman dezaketenak baina une batez norbere bizitzan hil ala biziko bihurtzen direnak eta, aldi berean, patroi orokorragoak ulertzeko gakoak ematen dizkigutenak.

**Itsasaldiak, hondarrak eta bestelako etxe bat. Zergatik berba horiek liburua egituratzeko?**
Itsasaldiek baldintzatzen gaituzte, haiek agintzen dute nola mugitzen garen. Lehenengo atalean, beraz, era hegemonikoan bizitzea bilatuko du ahots poetikoak, *Disney*ko maitasun-eredu erromantikoari jarraituz, nahi bada. Sostengaezina zaio hori, ordea, eta horrek utzitako min eta ajeak dira hondarrak. Horiek gogoan, norbere eta ingurukoen beharrei entzuten ikastea izango da asmoa, beste toki batetik, bestelako bizimodu bat eraikitzeko: bestelako etxe bat.

**Lehen bi atalei begira, nola baldintzatu du memoriarekin harremanak poemen idazketa?**
Interes eta bizipen pertsonaletan dute abiapuntua poemek, baina distantzia nahikoa hartu dut haiekiko liburuak kontatzen duena errealitatetik bereizi eta lanaren mesedetan sortu ahal izateko, idatzitakoaren azpian patroi horiek, nolabaiteko egiak edo, hobe, ezarritakoa zalantzan jartzen duten ideiak topatzeko eta hausnarketa horiei tira egiteko.

**Bestelako etxea atalean ageri dira "zuek" pluralera bideratutako poema bakanak, zergatik?**
Harremanekiko ikuspegi hegemonikoa deseraikitzen hasita, indibidualismotik eta bikotearen zentralitatetik ihes egin eta bestelako sareak eraikitzeko nahia agertzen da: kolektibotasuna dugu noranzko, askotariko harremanen zentralitatea eta zaintza. Maitatzeko eta, finean, bizitzeko modu hori proposatzea ere bilatzen du lanak.




**BIHOTZ-MUSEO BAT**
Leire Vargas
ELKAR

**ELENA OLAVE**
Idazlea

# CHICAS BRILLANTES

**El nuevo libro de Jessica Knoll bucea en una de las historias criminales que más conmocionaron al pueblo estadounidense en la segunda mitad del siglo XX: el primer asesino en serie mediático. Sin embargo, el thriller no se centra en el criminal, sino en las mujeres que le sobrevivieron y se enfrentaron a él. Una combinación magistral de suspense psicológico y ficción basada en crímenes reales nos espera bajo el título de *Chicas brillantes*.**




**CHICAS BRILLANTES**
Jessica Knoll
RBA

**Ted Bundy** fue uno de los asesinos en serie más mediáticos y sanguinarios de los Estados Unidos. Durante la década de los años 70 del siglo pasado, Bundy asesinó a, al menos, 36 mujeres jóvenes. Los crímenes de este asesino en serie causaron un fuerte impacto en la sociedad estadounidense debido a su crueldad y sadismo. Bundy consiguió escapar y burlar la persecución de las autoridades, pero su suerte cambió cuando algunas de las mujeres que sobrevivieron a sus ataques facilitaron información clave. En 1978, la policía logró capturarlo y fue condenado por sus crímenes. Finalmente, una década más tarde, cuando tenía 42 años, fue ejecutado en la silla eléctrica.

Basada en la escalofriante historia de Ted Bundy, **Jessica Knoll** ha escrito *Chicas brillantes*, un brillante thriller que pone el acento y el foco en las victimas y no en el asesino, a diferencia de otras obras similares. La autora parte de los crímenes reales, aunque incluye personajes y detalles ficticios que completan la historia. De esta manera, teje un relato vertiginoso que la escritora británica **Lisa Jewell** ha calificado de "casi hipnótico".

Pero, sobre todo, su novela huye del sensacionalismo de la violencia contra las mujeres y consigue centrarse y despertar el interés que merecen las historias de las mujeres afectadas (víctimas y supervivientes). Lo cierto es que las historias se pueden contar de muchas maneras, según los intereses y valores de quien las narra. Esta novela no solo se introduce en el nudo gordiano de una serie de asesinatos y ataques pocas veces vista, sino que plantea la reflexión sobre cómo los medios transmiten a la sociedad unos hechos tan tremendos y perturbadores.

Jessica Knoll se convirtió en una autora superventas gracias a su primer libro, *La chica que lo tenía todo*, adaptada a la pantalla en 2022 de la mano de la cadena de televisión Netflix. *Chicas brillantes* es su tercera novela.

## DE COSTA A COSTA

Pamela Schumacher se despierta a las tres de la madrugada en el edificio de su fraternidad universitaria en Tallahassee. Cuatro de sus compañeras han sido atacadas: dos mueren antes de llegar al hospital y las otras sobreviven con graves secuelas. Al otro lado de Estados Unidos, en Seattle, Tina Cannon intenta descubrir qué le pasó a su amiga Ruth, desaparecida a plena luz del día. Al enterarse de la tragedia en la fraternidad, Tina sospecha que el responsable es el mismo hombre. Decidida a hacerle pagar por lo que le hizo a Ruth, su camino se cruzará con el de Pamela, unidas en su ferviente búsqueda de la verdad.

**LUIS GARCÍA**
Periodista

60 AÑOS ALFAGUARA 1964 2024

EL FENÓMENO EDITORIAL DE LOS ÚLTIMOS AÑOS

Vuelve el tándem literario más exitoso para abordar el mayor misterio de la naturaleza humana.




Penguin Random House Grupo Editorial
www.penguinlibros.com
@PenguinLibros
Disponible audiolibro y ebook

# GAZAKO EGUNEROKOA

**_Gazako egunerokoa_k herrialde hartan Israelgo armada gauzatzen ari den genozidioari buruzko lekukotasun paregabea eskaintzen du. Egilea Atef Abu Saif da, Palestinako Aginte Nazionaleko Kultura ministroa.**

Liburuan, ordea, ez da ministroa mintzo, une oro bonbei iskin eginez nola edo hala bizirauten saiatzen den herritar arrunta baizik. Ematen du –eta neurri batean egia ere bada–, Gazako sarraskia ia-ia telebisatzen ari dela, baina **Abu Saif**en lan honek berriz ere agerian uzten du ez dela beti egia edo ez dela guztiz egia irudi batek hamaika hitzek baino gehiago balio duenik.

**Atef Abu Saif** Gazan jaio zen, zehatz-mehatz, Jabaliako errefuxiatu-esparruan. Beraz, lehendik ere bazuen zapalkuntzaren eta gerraren ankerraren berri. Idazlea da, batez ere nobelagintzan nabarmendu dena, eta, horrez gain, Zientzia Politikoen irakaslea Gazako bertako Al-Azhar unibertsitatean. 2019an izendatu zuten Kultura ministro –Fatah alderdiko kidea ere bada– eta geroztik Zisjordanian bizi izan da, Ramallah-n.

Alabaina, 2023ko urriaren 7an, infernuko ateak parez pare ireki ziren egun hartan, atzera berriz Gazan zegoen. Palestinako Ondarearen Eguna zela eta, bere karguarekin lotutako hainbat konpromiso zituen, eta pentsatu zuen konpromiso haiek betetzea eta senideak bisitatzea uztargarriak izan zitezkeela. Horregatik berekin eraman zuen **Yasser**, hamabost urteko semea.




**GAZAKO EGUNEROKOA**
Atef Abu Saif
Itzulpena: Irene Arrarats Lizeaga eta Maialen Berasategi Katalan
BERRIA / ELKAR / JAKIN



© ALEBAA NEWS

*Atef Abu Saif -en kronikak munduko hainbat egunkaritan argitaratu dira.*

Israelgo armadaren inbasioa hasi eta berehala, ordea, Atefek eta semeak beraien burua kale gorrian ikusi zuten, ostatua hartuta zeuden hotela bonba batek zeharo birrindu baitzuen, eta hara eta hona ibili behar izan zuten iheska, gainerako gazatarrek bezala, aterpe bila baino gehiago –Gazan ez dago aterperik– herioari iskin egiten.

Joan-etorri haietan, Atefek modua egin zuen ikusitako eta batez ere bizitakoari buruzko kronikak idazteko eta Gazatik kanpoko lagunei ahal bezala bidaltzeko, sakeleko mezu eta audio laburren bitartez.

Kronika harrigarriak dira, bizi-biziak, heriotzaren inguruan ardaztuta dauden arren. Atefek eztandak zenbatzen pasatako gauez hitz egiten du; hondakinen artean bizitza-aztarnak aurkitzeko ahaleginez; anestesiarik gabeko ebakuntzez; haurren amesgaiztoez; arpilatutako etxe, eskola eta ospitaleez; hildako senide eta lagunez; jan- eta ur-faltaz…eta bonbez, edonondik etortzen diren eta edonon eror daitezkeen bonbez.

## KRONIKAK LIBURU

Kronika haietako batzuk *The New York Times*, *The Washingtong Post* edo *Le Monde* egunkarietan argitaratu ziren, baita *Berria*-n ere. Horrela, Atef Abu Saifena izan zen Gazatik mendebaldeko komunikabideetara iritsi zen ahots bakarrenetakoa, are gehiago inbasioaren hasieran, Isralek ezarritako komunikazio-kontrola ezin zorrotzagoa izan zenean.

